




EAEko esportazioak %0,3 hazi ziren 2023an

Atzerrira bidalitako esportazioak
Urtariletik abendura bitartean. Milioi euro




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu dituen behin-behineko azken datuen arabera, **EAEko esportazioak atzerrira 32.645 milioi eurora iritsi ziren 2023an**. Eraitza hori, beste behin ere, energiaren bestelako produktuen bilakaerak bultzatu zuen (%3,4), eta edozein urtetan serie historiko osoan lortutako erregistrorik handiena izan zen.

Hoteletako gaualdiak gora egin dute berriro

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko urtarrila. Milakoak




Iturria: Eustat.

Urtarrilean, Euskadiko hotel establezimenduetako gaualdiak %3,4 gehitu ziren aurreko urteko aldi beraren aldean. Guztira, 365.000 gaualdi baino gehiago erregistratu ziren, eta urtarril batean inoiz lortu den baliorik handiena izan da aurtengoa.



Zerbitzuen negozio zifra %2,4 murriztu zen

Zerbitzuen negozio zifra
Urte bakoitzeko abendua. Indizea




Iturria: INE.

2023ko ekitaldiaren amaieran, zerbitzuen negozio zifrak %2,4 egin zuen behera EAEn. Hala eta guztiz ere, jaitsiera hori gorabehera, urte osoan %1,9ko hazkundera lortu zuen. Beste aldetik, sektoreko enpleguak goraegiten jarraitu zuen abenduan (%1,7), eta urteko balantzea ere positiboa izan zen (%1,5).

Industriako prezioek behera egin dute berriro

Industriako prezioen indizea (IPRI)
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Urtarrilean industria alorreko prezioek %5,2 egin zuten behera, aurreko urteko aldi beraren aldean. Horiek horrela, IPRIk balio negatibotan kokatuta dago joan den apiriletik, beste behin ere, energiaren prezioetan izandako merkatzearen ondorioz (-%24,9).